

[erandio]

Krystal Montoya > Kale Dor Kayiko ijito elkarte kulturala

“Aldatuz doa ijito herria, aurrera egiten ari da, baina sekula ez diogu utziko garena izateari”

Kale Dor Kayiko ijito elkarte kultureleko kide da Krystal Montoya Jimenez erandioztarra. Erandion, astelehenero egin ohi da azoka txikia, baina abenduaren 15ekoa berezia izan zen, elkartasun azoka egin zuten bigarren urtez. Gipuzkoan eta Bizkaian behar egiten du elkarteak, eta Ijito herriak bere burua hezi eta aurrera egiteko xedea dute; baina hori bai, bere izateari uko egin barik.

—Elkartasun azoka egin zenuten abenduaren 15ean.

—Bigarren urtez Elkartasun Azoka egin dugu. Iaz ateratako diruagaz Indiako ume bat babestu genuen, Ijito herria Indiatic dator eta. Elkartasun jaialdia ere egin genuen. Aurten ateratako dirua, barriz, Saharar herriarentzat izango da; une honetan beraiekaz lan egiten duten lagunakaz elkarlanean gabiltza.

—Elkartasun jaialdia ere egin duzue?

—Bai, hil hasieran izan zen eta ondo atera zen. Nuyum Saharar herriagaz elkartasun elkarteko lagunak ere bertan egon ziren. Antzerkia ere egin genuen, ijitoen eskutik. Hori ere bada helburua, gazteek ekimen horietan parte hartu eta antolatzea.

—Hori da elkartearen egitekoa?



Krystalek Erandioko Elkartasun Azokan jarri zuen postua

—Ijito herritarrentzat behar egiten dugu, eskolari dagokionez batez ere. Ijito herria ikasten eta hezitzen jarraitzea bultzatzen dugu, hori oso garrantzitsua da eta. Heziketaren garrantzia ikusarazten saiatzen gara, eta gero eta lagun gehiago dabil ikasten.


—Zerbait azpimarratuko zenuke?

—Ijito herria asko aldatzen dabilela, apurka aurrera egiten dabilela, hori da garrantzitsua. Ijito herriari buruz entzuten dugun guztia txarra izan ohi da, hedabideak gehienetan

morbo bila dabilta; lapurretan dabilta edo istiluak sortzen dituzten ijitoak baino ez dituzte ateratzen. Baina nire ustez beste ijitoak atera beharko lituzkete, ikasten duten ijitoak bilatu beharko lituzkete. Badaude sukaldariak, apaizak, poliziak edota irakasleak diren ijitoak. Aldatuz doa gure herria, baina garena izateari utzi barik. Sekula ez diogu uzten garena izateari, hori da garrantzitsua. Egiten duguna egiten dugula, baina gure izatea mantentzea. Sekula ez diogu utziko garena izateari. ○

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37



Basolanak

- Zuhaitz landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Mobila

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es